

ALKIZA

haitzen eta zuhaitz lepatuen artean

Argazkiak: LETXEZARRAGA



Wikiloc-en
topatuko duzu
ibilaldi hau

GnatKonekta



Sarbidea

Alkizako herrigunetik.

Zailtasuna eta errekerimenduak

Ibilaldi honek ez du ageri nabarmentzeko moduko zailtasunik. Halaber, ez du ekipamendu berezirik eskatzen, mendi ibilietarako oinetako eta

arropa egokiak baino ez. Komeni da ura eta elikagai arinen bat eramatea. Halaber, hartu ahal dela telefono mugikorra aldean, ezer gertatuko balitz ere.

Deskribapen laburra

Ibilbide osoa Alkiza udalerrriaren barruan dago, eta Hernio-Gazume

Kontserbazio Eremu Bereztian bilduta daude zeharkatuko ditugun lurrak. Garai bateko herri gurdibideetatik barrena ibiliko gara, zeinak lan handiz baitaude txertaturik Algorriko tontorreko kareharrizko arroka bizian, amildegien paretik eta zirrikituen artetik. Pagadiak eta



1/7

Gnaturaldia
Konekta



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

ALKIZA

hariztiak gaindituko ditugu, baita pinudiak eta larreak ere. Egundoko ikuskizuna, ñabarduraz eta kolorez josia.



Ibilbidearen eta bertan topatzen diren elementu naturalen eta kulturalen deskribapena

Oharra: WP hizkiekin (ingeleseko waypoint-etik eratorriak) adierazten dira ibilbideko gako-puntuak, hala bidegurutze bat dagoelako, nola intereseko kokagunea delako. Eskuineko zutabeen jaso dira kokaleku horien argazkiak eta azalpenak.



Alkizako herrigunetik, San Martin elizaren atzeko atrioaren parean, udaletxea parez pare dugula (WP 1), GI-3630 errepidea gurutzatu eta eskuinetan ageri den bideari helduko diogu, Maisuetxea eta Donmigelenea (WP 2) etxeak atzean utzi ondoren. Karabele etxearen paretik igaro ostean – Alkizalete eta Mariategi etheen artean eta Leteberri parean dugula (WP 3)–, eskuinetan ageri den asfaltozko bideari helduko diogu, Areta, Arantzabene eta Aritzategi baserrietarantz (WP 4).

Bide horretan, Areta baserria (WP 5) pasatu ondoren, aurrean topatuko dugun hormigoizko pistari jarraituko diogu (bat dator PR GI-78

bide homologatuarekin), eta, urrats pare bat egin orduko, legarrezko bide zorua izango dugu (WP 6).

Sasi eta sastraka nahasien artean igarotzen da bidea, han-herenka makina bat urteko urkiak, gereziandoak, gaztainondoak, haritzak, pagoak eta sahatsak direla, baita ohiko alanbre arantzadunak ere.

Lehendabiziko tarte honetan, larre eta otadien artean ibiliko gara, eta pagadiak eta intsini pinudiak ere zeharkatuko ditugu; natura basatiak eta gizatiartuak osaturiko mosaikoa.



Waypoint (WP)



1. Hasiera



2. Eskuineko aldapan behera



3. Aurrerantz



4. Eskuineko bidea



5. Ezkerreko bidea



6. Ezkerreko bidea



ALKIZA

Handik pixka batera, eskuinetan albo batera utziko dugu Beltzalagatziki (WP 7) baserriaren belardirantz eskuinetara irekitzen den bidegurutzea, lizar inausien sorta batez inguratua eta elorri zuri eder batekin apaindua.

Garai batean, ohikoa zen abeltzaintzako eta artzaintzako establezimenduak lizardiz hornitzea, uda partean itzal ederra egiten baitzuten, bai eta orri ederrak eman ere, abereak elikatzeko. Udazken oro, inausi egiten zituzten, kimatu: orriak ganadu janetarako baliatzen zituzten, eta adar hostogabetuak, berriz, su egurretarako, itxiturak egiteko eta abarretarako. Tradizioak dioenez, lizarrak uxatu egiten ditu tximistak –elorri zuriak ere bai-, eta udako solstizioan, sanjoanetan, lizar egurrez egindako gurutzeekin apaintzen zituzten baserri, txabola eta bordetako leihoak eta atak.

200 m eskas aurrera eginda, bideko parrila edo langa kanadiar bat igaro ondoren, otadi baten parean, aspaldian desagerturik dagoen Santakruz ermitara ematen zuen galtzadako bidera iritsiko gara. Bide horretatik aurrera eginda iristen da, halaber, Enaizburu-ltzuregi larreetara –gure ibilbidean aurreikusiak– eta Hernio gainetara ere (WP 8).



Otea edo etaka zuhaixka bat da, neurri ertainekoa, oso arantzatsua eta adar ugarikoa: ohikoa izaten da lurzoru pobreetan, eta sastraka masa itxiak osatzen ditu txilar eta garoarekin batera. Abendutik maiatzera bitartean loratzen da, inoiz ekainean ere bai, eta lore hori deigarriak ematen ditu. Garai batean, kimu berriak segatu egiten ziren, eta, txiki-txiki eginda, ganadu janetarako baliatzen zituzten. Horretaz gainera, azpiak egiteko ere erabiltzen zuten ukuiluetan, eta sastrakak estimazio handia izaten zuten kare labeetarako, kareharria egosiz karea lortzeko.

Garai bateko bide hori utzi, eta aurrera jarraituko dugu 1980an trazatutako pistan, amildegian barrena, hondoan Belaku eta Zopite harri handiak eta malkartsuak ditugula.

Waypoint (WP)



7. Belardirako sarrera. Aurrera jarrai



8. Ezkerreko bidea



ALKIZA

Beheranzko bidea apur bat zintzilikatutik ageri da Askantxo amildegi sakonean, eta berehala helduko gara erakuts atril bat duen irtengune batera (WP 9), atalaia paregabea Mandaberreka harana, lehen aipaturiko Belaku eta Zopite haitzak eta Hernio mendilerroa ikusteko, azken horren hegalkak eta malkarrak miretsiz, zeinak pagadi itxiz estalirik ageri baitira.

Belaku eta Zopite kareharrizko mendiek fenomeno karstiko ugari dituzte eskerqan: leizeak, osinak, zirriztuak eta arrailak, flora eta fauna espezie esklusiboak hartzen dituztenak. Halaber, leizeetan historiaurreko aztarnategi garrantzitsuak dituzte, bizitoki eta ehorzleku izandakoak, 5.000 urtetik gorakoak. Halaber, babesleku paregabea dira hainbat saguzar eta hegazti nekrofaqorentzat, hala nola sai arrea edo sai zuria, biak ere hauskortzat edo desagertzeko arriskuan dauden espezieetat hartuak Euskal Herrian.

Berrogeita hamar bat metro aurreraxeago eginda, oraindik ere haitzean sarturik, pagadi aldapatsu batean sartuko gara, eta, handik, baso misto nabari eta hostotsu batera irtengo, pago eta haritz helduz betea, tarteka-marteka gaztainondoak, urkiak, lizarrak, sahatsak, gorostiak eta beste hainbat hostozabal espezie direla, baita berriro sartutako pinuak ere. Sasiz, txilarrez, ahabiz eta belarkaraz jantzitako oihanarte itxi hau babesleku eta bizileku dute basurdeek, orkatzek, azkonarrek, muxarrek eta tankerakoek. Eta

hantxe bizi dira, halaber, ontzak, okil handiak, eskinosoak... Baita hainbat saguzar espezie eta hamaikatxo ornogabe ere. Ekosistema horrekin loturik daude, era berean, hainbat onddo eta liken.

Tonalitatez, kontrastez eta formaz jositako ingurumari horretan, nabarmentzekoak dira nonahi ageri diren pago inausi zaharrak, ipuin batetik ateratako paisaia batean bezalaxe. Haien forma bitxia eta kurioa adarren aprobetxamendu jarraituaren emaitza da, egur ikatza egiteko baliatu izan baitira aspaldiko garaietatik XIX. mendearen erdialdera arte, dela burdinolaka elikatzeke, dela industria siderurgikoa hornitzeko.

Hegalean txertaturiko bideak poliki-poliki gorantz egiten du, sasien, garo sailen eta txilar eta ahabiz osaturiko alorren artean, etengabe Korosti errearen soinu nabarmena lagun dugula, zeina metro batzuk beheragotik igarotzen baita.

Apurka-apurka, osinera ematen duten lau bidegurutzetako bat bera ere hartu gabe (WP 10 eta WP 11), Igarzaberrieta arrail ikusgarrira iritsiko gara, zeina euri sakan handiek ebakita eta kimaturiko pago ugarirekin bereziki apainduta ageri baita. Nabarmentzekoa da pago inausi horietako bat, pistaren parean ikusiko duguna: enborra harrotuta ageri du, tximista baten

Kimaketa edo inausketa hainbat zuhaitz ustiatzeko garai bateko modu tradizionala da (haritzak, pagoak, lizarrak...). Zuhaitz landareak bi metro ingurura ebakitzen ziren, eta, zuzendutako hainbat ebakiren bidez, kimu berriak ematen zituzten hainbat garaieratan, zeinak batez ere egur ikatza egiteko eta ontzigintzarako pieza kurbatuak eskuratzeko baliatzen baitziren, betiere arbolari zutik eutsiz eta, ondorioz, fruituak animalien eskura ipiniz.

Waypoint (WP)



9. Begiralekua



10. Aurrera, ezkerreko bidea hartu gabe



11. Aurrera, ezkerreko bidea hartu gabe



ALKIZA

inpaktuaren eraginez (WP 12). Handik berehala, kareharri geruzatuen fronte harrigarri bat altxatzen da, hostore erraldoi bat balitz bezala.

Segituan, Lete baserriko borda paregabera iritsiko gara, pago eta pinu laritzen artean; gaur egun berrituta dago, eta aurrealdea aterpe publiko gisa egokiturik dauka.

Bordak landa eraikinak dira, oinplano angeluzuzenekoak eta harriz eta egurrez altxatuak; eskuarki, lurrezko zorua izaten dute, eta bi isurialdeko teilatua. Solairu bat edo bi izan ohi dituzte, eta baserrien alboko soroetan ezartzen dira, baina baita mendian isolaturik ere. Bazka biltegitatzeko edo ukuilu gisa baliatzen ziren.

Puntu honetan (WP 13), ezkerretara joko dugu bordaren ertzaren paretik, eta berriro pinu laritz sartutako sailak eta harizti eta pagadi zatiak zeharkatuko ditugu. 300 m egin eta berehala, bidegurutze bikoitz bat igaroko

dugu (WP 14), eta, beste 80 m igarota, Itzuregiberri gailurreko mendi bizkarrera irtengo gara (WP 15).

Inguru hori garai batean ikusteko belardi eta garo saila zen; gaur egun, hosto erorkor eta iraunkorreko konifera sartuta dago: pinu laritzak dira nagusi, larizio pinuen eta izeien artean, zuhaitziak eta arbola solteak nonahi direla –urkiak, haritzak, pagoak eta sahatsak nahasian, garai bateko basotxoaren hondarrak–.

Eskuinetara joko dugu (ezkerreko bideak Hernio gainetara ematen du). Konifera ertzen artean aurrera eginda, berehalako batean azalduko gara Itzuregiko larreetan: belardiz, garo sailez eta otadiz osatutako mosaiko ikusgarria, kirkil eta satorren paradisua. Eremu horiek basoari mende luzeetan jandako lurren hondarrak dira, unean uneko premia ekonomikoak estali ahal izateko (abeltzaintza, basogintza). Paregabea da Hernio mendilerroaren gaineko ikuspegia, baita parez pare izango dugun ortzi muga ere, mendiz josia.

Waypoint (WP)



12. Mugarrotutako pagadia



13. Segi bidea, ezker aldera

14. Segi aurrera



15. Eskuinera



ALKIZA

Alanbredun itxitura batez babesturiko plantazio baten paretik jarraituko dugu. Aurreraxeago, muino baten erdian eta bidez inguraturik, urki sorta baten parean, orain milaka urtetatik dago zutik Itxurain trikuharria (Itzuregi), Hernio Estazio Megalitikoko Monumentu Multzoan txertatua.

Orain 5.000 eta 3.000 urte inguru, artean ehizan eta bilketan jarduten zuten artzain tradizioko erkidegoek altxatuak dira trikuharriak. Metaketako ehorzleku kolektiboak dira, eta, oro har, trazu angeluzuzeneko ehorzketa ganbera bat izaten dute, landu gabeko bloke handiz estalita, zeina, aldi berean, osorik babesturik ageri baitzen, oinplano zirkularreko harri eta lur metaketa ordenatu edo tumulu batez. Panteoi horietan, hildakoen gorpuak gordetzen zituzten, erabili ohi zituzten objektuekin eta ofrendekin batera. Tradizioak pertsonaia mitologikoen ehorzleku gisa azaldu izan ditu. Gorpuak altxorrekin batera lurperatzen zituztela uste izanaren ondorioz, bilaketa klandestino ugari izan dituzte. Horrexegatik, neurri handi batean, egun ageri duten itxura.

Urrats batzuk atzera eginda (WP 16), hasieran aipatutako PR GI-78 bidearen trazatuarekin batera doan bideari helduko diogu. Urkiak ditu albo banatan, eta aldapa malkartsu batean gora joango gara. Otsagaztelueta amildegi neketsutik barrera (WP 17). Ondoren, Algorri harkaitz zozo harritsuaren iparraldeko isuria igaroko dugu, harkaitzez jositako pagadi laiotz batek jantzita dela.



Bidea ondo trazaturik dago, eta tarte batzuetan galtzada uneak ageri ditu, ia desnibelik gabe. Lur ireki batera ematen du, ertz batean pagoak eta bestean larizio pinuak dituela (WP 18). Aurrerago, Maitegi baserriko garai bateko belardiaren paretik eta bordatik igaroko gara.

Handik pixka batera, pinudiaren erpinean bertan, urki ikusgarri bat ikusiko dugu. Berehalaxe, langa bat zeharkatuko dugu (WP 19), eta, 80 m egin orduko, Santakrutzen sartuko gara. Garai batean, izen bereko ermita bat zegoen han, orain hainbat mende desagertua (WP 20). Puntu horretatik bazter guztietara ageri diren ikuspegiak merezi dute apur batean atseden hartu eta gozatzea.



Waypoint (WP)



16. Ezkerrera, beherantz



17. Gomendagarria, ezkerreko bidea, sigi-saga



18. Pago saila



19. Langa pasa eta zuzen



20. Eskuinerantz, behera



ALKIZA

Garai batean Alkizatik Hernio gainera eta Iturriozko San Juan ermitara ematen zuen bidearen parean zegoen Santakruz ermita: 1758an bota zuten, itxura denez, aurri egoeran baitzegoen. Kontatzen dutenez, huraxe izan zen Alkizako lehendabiziko parrokia eta kanposantua, eta, egungo hilerria eraiki zutenean, Santiago ermitaren parean, zortzi gurdikada hezur jaitsi omen zituzten handik. Garai batean, Santakruz egunean (maiatzak 3), meza izaten zen. Alkizako herritarrak joaten ziren bertara, eta, ondoren, soroak bedeinkatzen zituzten.

Bideak galtzada harria du zati eder batean, eta, 180 m inguruko tarte bat jaitsi ondoren, ehun urtetik gorako pago inausi baten aurretik igaroko gara. Beste 70 m inguruko tarte igaro ondoren, hasieran aipatu dugun tartera irtengo dugu; hau da, Santakruz ermitara igotzeko bidera (WP 8). Bidegurutze horretan, parez pare jarraituko dugu goazen bidetik, eta belardi eta pinudiak zeharkatuz jaitsiko gara, harik eta Alkiza herrigunera iritsi arte (WP 21). Guztira, 6,9 km luzeko bidea.

Waypoint (WP)



21. Helmuga



Gogoratu mendia, basoa eta hondartzazaindu behar dituzula, errespetatu animalia eta landareak eta eraman sortutako zaborra etxera bueltan.



gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/konekta

7 de 7

Gnaturaldia
konekta

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumena eta Oribi
Hidroizolazio Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro